

EUGENIO RODRÍGUEZ PASCUAL FUNDAZIOA: **IKERKETA BIOMEDIKORAKO LAGUNTZEN** **DEIALDIA 2018**

Proiektuen iraupena:

Proiektuek urte bateko edo biko iraupena izango dute.

Finantzaketa:

Proiektuengatik, gehienez, 25.000 euro emango dira urteko.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- b. Eskaera aurkezten denean, lotura izatea edozein herrialdetako irabazi asmorik gabeko eta ikerketara emanak diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. Pertsona horiek UPV/EHUa aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.
- a. Beste proiektu batzuen karguko obra edo kontratu zerbitzua duten ikertzaile kontratatuek **EZIN** dute parte hartu deialdi honetan.

GARRANTZITSUA: Ikertaldeko kideek, baldin eta laguntza gauzatu bitartean UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, **ezin** izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a. Proiektuaren memoria.
- b. Taldekide guztien CVa.
- c. Ikertzaile nagusiaren IFZaren fotokopia.
- d. UPV/EHUko Etika Batzordearen txostena (behar izanez gero).
- e. **Ikertzaile nagusiak eta Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako gutuna.**

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Deialdi honek **ez** du ikertzaileen kontratazioa finantzatuko.

UPV/EHUko ikertzaile nagusiek aurkeztutako eskaerek zehar kostuen %5a jaso beharko dute aurrekontuan nahitaez.

GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko azken eguna:

Ekainaren 29ko 20:00ak arte

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
Ekainaren 20a Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkarri legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.	Ikertzaile nagusia	Bidali I. Eranskina, aurrekontua eta errektoreordearen sinadura behar duten inprimakiaren orriak helbide honetara: igz.deialdiak@ehu.eus Fase honetan ez da zientzi memoria osoa bidali behar.
Ekainaren 26a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali inprimakia Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta.
Ekainaren 29a, 20:00etan	Ikertzaile nagusia	Eskaerak Fundazioan aurkezteko azken eguna. Era berean, ikertzaile nagusiak bidali beharko du eskaera osoa artxibatzeko: igz.deialdiak@ehu.eus helbidera.

GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: igz.deialdiak@ehu.eus

UPV/EHUrekiko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: igz.deialdiak@ehu.eus

Fundazioarekiko harremana:

- Telefonoa: 651 178 787
- E-maila: secretaria@fundacioneugeniorodriguezpascual.es

Informazio gehiago:

<https://www.fundacioneugeniorodriguezpascual.es/ayudas.php>